

B

BARREN

TOKIKOM

Arnoko sekretuak argitara



Elgoibar Arreiturre BHI 2014-2015 ikasturtea



Elgoibar Arreiturre BHI
Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 013431aa@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.net

BATXILERREKO ESKANTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA

GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

AURREMATRIKULAKO DATAK:

MAIATZAREN SETIK 15ERA





Maitane Mendikute

Zorionak, Jani!
Buelta bat baino gehiago eman diot gaurko idatzitxo egiteko gaiari, baina ezin kendu burutik iritsi berri den gure printzesa txikia!

Zer moduz ikusten da mundua ama baten begietatik, Jani? Zenbateraino aldatzen du ume ba-

ten etorrerak bizimodua? Lasai! Izango duzu honi erantzuna emateko astia hurrengo hilabete eta urteetan.

Eta haur batek bizimodua asko aldatzen badu ere, pentsatzen jarri naiz inguruak ere zenbateko eragina duen haurraren, eta zein azkar eta zenbateraino transformatzen den hau ere. Gogoan al duzu orain dela ia 30 urteko Mendaro? Euskal Herria? Mundua? Ba al zeukaten gaur egun direnaren antzik?

“Nolakoa izango ote da Mendaro? Eta Euskal Herria? Hein batean, ‘gure esku dago’”

Eta pixka bat hausnartuta, ume-umetako lehen oroitzen gehienak Mendarora lotzen dira, noski. Mendaroko “trantsizio” garaietara edo, auzo izatetik herri izatera pasa zeneko garaietara. Gogoratzen al duzu zein auzo aldeniak ziren Azpilgoeta, Garagartza eta Mendarozabal? Gogoratzen al zara erreka pasatzeko erabiltzen genuen San Antonio zubiaz? Eta auzo guztietan sakabanatua genituen ikastola erakinez? Eta noiz-nahi gainezka egiten zuen Kilimon erreka eta inguruaz? Eta Ospaz-Gain futbol zelaiak? Lasaldeko Juanito alkateak?...

Horretaz gain, gogoan ditut, Jani, zure amaren R6 zuriko esne marmitak, iganderoko gure mezako osterak (katoliko sutsuak ginen-eta), Emeterioneko goxokiak eta futbolina, bederatzi laguneko gure ikasgela, eta amamaren txorizo *pamplona* ogitartekoak, etab. etab. Garai politikak. Zoriontsuak! Ea horrelakoxeak diren hurrengo belaunaldien lehen urteak ere!

Eta nolakoa izango ote da Mendaro gaztetxoan begiz? Eta Euskal Herria? Eta Mundua? Hein handi batean, *Gure Esku Dago!*



Janire Elordi

Eskerrik asko!

Ba, berriz ere, duela urte batzuk bezala, orduak lapurtzen ari natzaio gauari eta nola ez, nire bizitza printzesatxoaren arabera antolatzen.

Baina atzera begiratzeko zure gonbitari segika, ondo gogoan dut, bai, gure haurtzaroko Mendaro, beste Mendaro hura. Kontatzekoa da zein abiaduratan transformatu eta hazi zaigun gure herritxoa: ospitalea eraiki zuten, frontoian pilotan egiteko aukera sortu zitzaigun, ikastola berria estreinatu genuen, etxe-bloke berriak non-nahi eraiki zituzten, inguruetako udaletxe modernoena eraiki zuten... Uste dut hurrengo 30 urteetan Mendarok ez duela horrelako aldaketa bortitzik jasango; ezin duela.

Oraingo Mendaro hau gazteagoa den arren, modernoagoa eta urbanitagoa, gogoan dut umetan kalean eta eskolan ia denok euskaraz hitz egiten genuela. Berdin zion etxean egiten bazen edo ez, gurasoak Galiziakoak edo Extremadurakoak ziren: haurren munduan euskara zen nagusi. Aspaldion, ordea, txikien artean, euskararen presentzia eskas samarra dela esatera ausartuko naiz. Hori ote etorkizunak Mendarori gordetzen dion aldaketa?

“Orain, inoiz baino gehiago, ‘gure esku dago’ bakearen bidetik geure izaera aldarrikatzea”

Baina herritik haratago, badut beste kezka bat ere: gerrarik gabeko mundu bat posible ote da? Beldurtzen naiz orain Ukraina aldean gertatzen ari dena ikusita, eta neure inozentzian, munduko azkeneko gerra izango zela uste nuena datorkit burura: Europako mugetan izan zen Bosnia-Jugoslaviako gerra hura.

Euskal Herrira itzulita, hemen, orain, inoiz baino gehiago, *Gure Esku Dago* bakearen bidetik geure izaera aldarrikatzea. Beraz, elkarren ondoko metroetan zerura begira jarrita, katearen zatitxo bat izateko ilusiotan naiz, nazioen Europa bat posible dela amestuz, gerra gabeko mundua ederragoa litzakeela amestuz.

I. URTEURRENA

SANTOS MUGUERZA LEYARISTI

2013ko apirilaren 27an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Danele Sarrigarte, Mike Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Hausnarketarako galdera

Eguerdietan igerilekura joateko ohitura daukat, eta joan zen astean umeek eskoletan jai zutela nabari zen. Izan ere, kiroldegiko al-dageletan ume asko ikusi nuen, egun arrunte-tan ikusten ez dudana.

Kontua da astelehenean, asteartean eta asteazkenean aldagelan mutil-koxkor talde batekin batera aldatzen egotea suertatu zitzaidala. Mutil horiek berrikeran aritu ziren arropak aldatu bitartean, eta nire harridurarako, hiru egunean ez zuten hitz bat bera ere euskaraz esan; erdera hutsean hitz egiten zuten euren artean.

Bueno, hau ez da guztiz egia, asteazkenean mutil bati amak telefonoz deitu zion ea non zebilen galdezka, eta euskaraz erantzun zion: beraz, ondo zekien euskaraz hitz egiten. Ez dakit hau esan beharra dagoen, baina badaezpada ere: ez, ez ziren etorkinen umeak. Igartzen zen umeak "hemen bertakoak" zirela. Askok, filmean bezala, zortzi abizenak euskaldunak izango zituzten.

Harritura geratu nintzen, bai, honek horrela jarraituz gero burruka galduta daukagulako. Alferrik dira euskaltegiak, D ereduak, enpresetako euskara planak, eta beste ahalegin guztiak. Herri euskaldunetako 10 urteko ume koxkorak, euskeraz hizketan dakitenek, beraien arteko harremanetan erdara erabiltzera jotzen badute, akabo euskararen etorkizuna.

Ni Mutrikuarra naiz, eta Mutrikun etorkinen seme-alabek kalean euron artean euskeraz hitz egiten ikusi ditzakegu. Zer ari da gertatzen Elgoibarren, ingurune euskalduna izanik, euskeraren aldeko herri mugimendu indartsuak dituen herria izanik, 10 urteko umeek beraien artean erdera hutsean komunikatzeko?

Pedro Arreitunandia ☞

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, esker onez

Lerro hauen bidez, Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue apirilaren 13ko Kilimon Trail mendi lasterketa arrakastatsu egin zenuten guztioi. Lehenengo eta behin, mila esker kirol proba hau babestu duzuenoi: Mendaroko Udala, Altzolako Urak,

BES-T, HG SPORT, Kilimon landetxea, *Berría* egunkaria, Norbega, Landa erretegia, Uztargi taberna eta Lerun jatetxea, Coviran denda, eta Iriondo Kirolak eta GYS Astigarraga Elgoibarko kirol-dendak.

Eskerrik asko, era berean, batera zein bestera proba hau antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Mila esker ibilbidea bera markatzen lagundu diguzuenoi, anoa postuetan egotea egokitu zaizuenoi, baseritarroei, bidea markatzeko erabilitako materiala batzen jardun duzuenoi, eta, zuri, losu Juaristi, kanpo harremanetan egindako lanagatik. Eta bukatzeko, eskerrik beroenak, zuei, parte-hartzaileoi, lasterketa hau antolatzen jarraitzeko indarra eman diguzuelako. Datorren urtean gehiago, eta hobeto!

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak ☞

OHARRA



Maiatzaren 1eko jai-zubia dela-eta, datorren barixakuan ez dugu **BARREN** aldizkaria kaleratuko. Hurrengo alea maiatzaren 9an jasoko duzue.



Pilar ikastetxe ingurunea oso zatarra geratu da: "Pilar ikastetxea bota ostean izugarritzko horma zatarrak agertu dira, eta ingurune horrek itxura oso zatarra hartu du. Urazandi auzoko bizilagunak ez gaude pozik ingurune horrek hartu duen itxurarekin. Obrak amaitu gabe daudela dirudi, eta dena hondatuta balego bezala ikusten da. Beste irtenbideren bat aurkitu beharko litzateke gune horretarako. Kontuan hartu behar da errepide nagusitik ere ikusten dela zonalde hori, eta herriari ez diola itxura onik ematen".



Kiroldegi sarrerako aldapa oso ondo gelditu da: "Txalo bat eman nahi diogu Elgoibarko Udalari, kiroldegiko sarreran egin duten aldapagatik. Oso ondo geratu da, benetan. Beti hor egon dela ematen du, oso modu naturalean egokitu dute ingurunea, eta polita geratu da. Hain ondo geratu dela ikusita, ez dugu ulertzen zergatik ez duten obra hori lehenago egin, baina tira, berandu bada ere, arazo handi bat konpondu dute, eta hori eskertzekoa da".



Kalamua guraso elkarteak Armueta harategiko Isabeli eskerrak eman nahi dizkio: "Kalamua guraso elkarteak Armueta harategiko Isabeli erakutsi duen eskuzabaltasuna eskertu nahi dio. Txosnan zozketatu genuen urdaiazpikoa berari egokitu zitzaion, baina elkartearen esku laga du, behar gehiago duenari emateko. Klarisei eraman diegu urdaiazpikoa, haiek egunero banatzen dizkietelako ogitartekoak beharra dutenei. Eskerrik asko, Isabel".

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
baren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

Maiatzak 7, eguztina

Elgoibarko Izarra kultur elkartearen Bazkideen Batzar Orokorra

19:00etan
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan

Elgoibarko Izarrako Zuzendaritza Batzordeak elkarteke bazkide guztiak animatu nahi ditu batzarrera azaldu eta bertan parte hartzera.

GAI-ORDENA:

1. Lehendakariaren AGURRA.
2. 2014-2016 urteetarako Plan Estrategikoa: antolaketa-ereduaren aurkezpena.
3. 2014-2016 urteetarako Zuzendaritza Batzordearen proposamena.
4. 2013ko memoria ekonomikoaren aurkezpena.
5. Galdera-erantzunak.

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

Eguaztenean inauguratuko dute makina-erremintari buruzko kaleko erakusketa

Urte osoko egitaraua prestatu dute makina-erremintaren mendeurrena ospatzeko

Makina-erremintaren mendeurrena ospatu nahi du Elgoibar-ko Udalak, eta horretarako, urte osorako egitaraua prestatu dute. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak, Xabier Ortueta AFMko zuzendari nagusiak, Rafael Barrenetxea Makina Erremintaren Museoko presidenteak, Juan Angel Balbás Debege-sako zuzendari nagusiak eta Pello Arrieta Elgoibarko historialariak aurkeztu zuten egitaraua. Ibilbide gidatuak, erakusketak, hitzaldiak, kale erakusketak eta lehiaketak antolatu dituzte, besteak beste.

Kale-erakusketa eguaztenean

Datorren astean hasiko dira makina-erremintaren mendeurrenari lotutako ekintzak. Eguaztenean inauguratuko dute kaleko erakusketa, 12:00etan, udaletxe atzeko Katanarra atearen ondoan. Elgoibarko industriaren historiaren berri emango duen makina-erreminta eta elementu zaharren erakusketa izango da. Makinak eta beste elementu batzuk kristalezko kutxetan sartuta jarri dituzte Bolatokiko parkean eta Giza Eskubideen plazan, eta Altzolatarren dorretxeko ate zaharrak Muguruzataren arkuaren ondoan jarri dituzte. Urte osoan egongo dira horiek erakusgai.



Hitzaldiak

Makina-erremintaren iragana, oraina eta etorkizunari buruzko hiru hitzaldi ere antolatu dituzte, eta lehenengoa datorren martitzenean izango da, hilak 29, 18:00etatik aurrera, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Estarta y Ecenarro, Goratu, Etxe-Tar, Danobat eta Industrias Puigjainer enpresateko kideek hartuko dute parte.

Festa eta politika batu zituen EGI egunak Elgoibarren



Euzko Gaztedik Elgoibarren ospatu zuen EGI Eguna apirilaren 12an. Egun osoko egitaraua antolatu zuten: ikurrinaren igoera, herriko alderdikideei omenaldia, ekitaldi politikoa, herri bazkaria, pilota partidak, triki-poteoa, disko-festa Oihan Vegarekin... Eguraldia lagun, prestatu zituzten ekintzak "ezin hobeto" irten zirela jakinarazi dute Elgoibarko EGiko kideek. Urtero Euskadiko lurralde batean ospatzen dute EGI eguna, eta aurten Elgoibarren egin dute. Izaskun Bilbao EAJko europarlamentariak eta Andoni Ortuzar EBBko presidenteak ere parte hartu zuten ekitaldietan. Eguneko argazkiak ikusteko: www.elgoibarren.net.

Zenbakia **345.000 euro**

Eusko Jaurlaritzak 16 milioi euro banatuko ditu enplegua sortzeko, eta Debabarrenak 345.000 euro jasoko ditu. Debabarreneko Enplegu Planaren ordezkaria Elgoibarko Udala da, eta berak jasoko du diru hori, eskualdean banatzeko. Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Soraluze eta Eibarren inbertituko da diru kopuru hori. 18 proiektu aurkeztu dituzte dagoeneko, eta 16 pertsona kontratatuko dituzte lanaldi osora, eta beste 15 pertsona lanaldi erdira. Kontratazioak gehienez 6 hilabeterako izango dira. Elgoibarko Udalak lau proiektu aurkeztu ditu, lau pertsona kontratatze-ko. Era berean, enpresei zuzendutako beste egitasmo bat aurkeztu du: Elgoibarren Kirol armeria sektorean diharduten *Belaunaldi arteko transmisioa* egitasmoa. Kasu honetan, enpresek eurek egin beharko dituzte kontratuak.

Eguna **Maiatzak 1**

Debabarreneko LAB sindikatuak maiatzaren 1eko manifestazioan parte hartzeko deia egin die herritarrei. LABen ustez, krisia iruzur handi bat da, eta horren aitzakian langileen kontrako neurri guztiak justifikatzen dituzte: “Gasteiz eta Iruñeko gobernuak Madriletik datozen neurri guztiak zuzenean aplikatzen dituzte, elite ekonomiko txiki baten mesedetan. Nahiz eta publikoki erreformen kontrako adierazpenak egin, irabaziak privatizatzen dituzte eta galerak jendarteratu, aberatsen eta txiroen arteko desberdintasun sozial eta ekonomikoak areagotuz”. Irakaskuntzan gero eta irakasle gutxiago dagoela dio sindikatuak, osasun arloan ere murrizketa handiak egon direla, industria sektorean enpresa asko itxi eta langile asko kaleratu dituztela eta Debabarrenean langabezia bikoiztu egin dela 2008tik hona. Horregatik eta bestelako Euskal Herri bat posible dela uste dutelako, maiatzaren 1ean Eibarren egingo diren ekitaldietan parte hartzera deitu dituzte herritarrak. 12:00etan irtengo da manifestazioa Untzaga plazatik, eta 13:00etan ekitaldi politiko-sindikala egingo dute Untzagan bertan. 15:00etan herri bazkaria egongo da.

Igogailu publikoak **Ordutegi zabalagoa**

Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, ordutegi berria izango dute herriko igogailu publikoek. Hala, barixakuetan eta zapatuetan 6:30etik 1:00era egongo dira martxan, eta gainerako egunetan, berriz, 6:30etik 23:00etara. Gaur egun Toletxegaingo tren geltokiaren ondoan eta anbulatorioaren parean daude igogailu publikoak Elgoibarren, baina aurten beste bat eraikitzea aurreikusten du Elgoibarko Udalak, San Roke eta Trenbide kalea lotzeko, hain justu ere.



Trinitate jaietako azoka berezian izena emateko epea zabalik

Ekainaren 14an izango da Trinitate jaietako azoka berezia, Elgoibarko Udalak eta Debemenek antolatuta. Debemen elkartetik jakinarazi dutenez Elgoibarko baserriar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera. Izena emateko Debemenera (943 744 067 telefonora) bertara deitu beharko da, maiatzaren 9a baino lehen.

Lourdesera erromesaldia egingo dute maiatzaren 30etik ekainaren 2ra

Maiatzaren 30etik ekainaren 2ra egingo dute aurten Lourdesera erromesaldia, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Gaixo edo laguntzaileek eman dezakete izena, 661 692 246 telefonora deituta. Izena ematerakoan 30 euro ordaindu beharko dira gaixo bakoitzeko. Bi kontu korrante zenbaki jarri dituzte interesatuen eskura: 2095 5092 01 1061425665 (Kutxabank) eta 3035 0060 41 0600027700 (Laboral Kutxa).

Artile tailerra egingo dute bihar, azken zapatuko ferian

Apirileko azken zapatuko feria antolatu dute Udalak eta Debemenek biharko, eta hileroko ekitaldiez gain, artile tailerra prestatu dute umeentzako. Artilea nola lortu eta nola tintatzen den ikasiko dute besteak beste, eta ondoren, eskumuturrekoak egingo dituzte artile horrekin. 12:00etan hasiko da tailerra, Kalebarren plazan.

Era berean, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da goizean goizetik, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketak egingo dute Aita Agirre plazan. Hilabete honetan Taupada antzerki taldeak jarriko du txosna, eta 11:00etatik aurrera sasoiko produktuekin eginiko pintxoak salduko dituzte. Hilero moduan, Kale Kantariak irtengo dira kantura, 12:00etan.

Erretratu zaharra



1947

Aste honetako erretratu zaharra Rosario Belokik ekarri du BARRENERA. 1947. urte ingurukoa da, eta Aita Agirre eskoletako gela batean aterata dago. Ikus ditzagun zein diren mutiko horiek.

Goian: Jesus Mari Urbietta *Kiriki* (†), Miguel Gabilondo *Serenokua*, Juan Jose Astigarraga *Porru* (†), Jesus Etxabe, Elorza, Azkoiti. **Bigarren ilaran:** Juan Mari Hernando (irakaslea), ezezaguna, Carmelo Zubiaurre, Agustin Gorostiza (Gorostiza tabernakoa), ezezaguna, Ignacio Badiola (†), Iñaki Beristain (†). **Hirugarren ilaran:** *Madriles*, ezezaguna, Jose Arakistain, Angel Iriondo *Angelo*, Fernando Ansola (†), ezezaguna. **Behean, eserita:** Javier Iriondo *Chamaco*, ezezaguna, Jose Antonio Beloki (†), ezezaguna, Agustin Compañon (†), Jose Antonio Urbietta *Kiriki*, Javier Osoro *Artola*.



I. URTEURRENA

CESAR CORO HUBERT

2013ko apirilaren 23an hil zen, 89 urte zituela.

*“Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan”*



Martxoan...

JAIOTAKOAK



Danel Gorosabel Leiaristi
Martxoak 21
Ibon eta Leire



Amets Diez Astigarraga
Martxoak 15
Jose Luis eta Ainara

Marta Alonso Bilbatua
Martxoak 7
Jose Antonio eta Saray

Ibon Basurto Gorostiza
Martxoak 8
Jon eta Nerea

Maddi eta June Martin Zumeta
Martxoak 12
Oscar eta Idoia

Gares Tadeo Gofii
Martxoak 18
Aritz eta Miren

Yasmin Bachiri
Martxoak 27
Mostapha eta Dounia

Aimar Muñoz Ibarra
Martxoak 27
Jose David eta Olatz

Nora Etxaniz Cid
Martxoak 28
Ibon eta Noelia

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

HILDAKOAK

- Maria Sangroniz Elorriaga • 96 urte • Martxoak 6
- Eulogio Perez Carbajo • 81 urte • Martxoak 9
- Antonio Carrion Mansilla • 73 urte • Martxoak 10
- Juan Marin Hervas • 87 urte • Martxoak 12
- Salvador Rosa Lopez • 89 urte • Martxoak 30
- Martxu Zubiaurre Gonzalez de Mendibil • 87 urte • Martxoak 30
- Celso Blanco Sesto • 70 urte • Martxoak 30

ETXEBERRIA
Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA
TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**
**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

JUAN MARI OSORO AGUIRRE
"Katxo"

2014ko apirilaren 22an hil zen, 66 urte zituelarik. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




ESKERTZA eta MEZA

ISIDRO ASTIGARRAGA AROCENA
"Katalotza"

2014ko apirilaren 12an hil zen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Domeka honetan, apirilak 27, meza izango da goizeko 11:30ean Madariagako elizan.




k i l l i barren

ARNORA BEGIRA



Ekhi Zubiaurre, Leire Kerexeta eta Naia Fernandez, Araiz Aldazabal Ludotekako dinamizatzailearekin.

Arno mendiak gordeta izan dituen sekretuak azaleratuko dituzte Mendaroko haur eta gaztetxoek maiatzaren 11n San Agustin kulturgunean eskainiko duten ikuskizunean. Bi saio eskainiko dituzte: 17:00etan eta 18:30ean. Antzerkia, dantza, ikus-entzunezkoak eta beste hainbat kultur adierazpide uztartuko ditu jaialdiak, eta 4 eta 12 urte bitarteko 50 bat gaztetxok parte hartuko dute. Ludoteka eta Gaztelekuaren bueltan ibili ohi diren gazteak dira horietako asko, eta ikuskizun honekin bi espazio publiko horietan egiten dutena herrira zabaltzea dute helburu.

Ainara Argoitia

Mito eta kondairetan mendikate aberatsa da Arno, eta zer esanik ez fauna eta flora. Bitxikeriaz jositako parajea da, balio natural handikoa, eta urteetan ustiapen nagusia ikazkinena izan denez, oihana bere horretan mantendu da, eta ondorioz, hainbat pizti bereziren bizilekua izan da, Ibai Portu injinieru agronomoak *Arno*, *piztiak* eta *bandiduak* izeneko liburuan jaso zuenez [Alain Ulazia, Aitor Bazarro, eta Paula Herasekin batera osatu eta eman zuen argitara liburua]. Baina piztietei ez ezik, bandiduei ere eman die babeslekua Arnok. Eta hori guztia jaso eta landu dute orain Mendaroko gaztetxoek. Liburu hori abiapuntutzat hartu, eta Arnoren inguruko informazio ugari bildu dute

gazteek, eta material guzti horrekin ondu dute maiatzaren 11n eskainiko duten ikuskizuna.

50 neska-mutiek parte hartuko dute jaialdian, eta haietako hirurekin batu da BARRREN, Ekhi Zubiaurre, Leire Kerexeta eta Naia Fernandezekin. 12 urte dituzte hirurek, aurtan 13 egiteko, eta Ludotekatik Gaztelekura-ko saltoa egingo dute aurtan. 4 urte bete zizutenetik gaur arte euren “bigarren etxea” izan dena lagako dute, eta hantxe bertan, Ludotekan, egin dugu haiekin hitzordua. Arnoren inguruan osatu duten ikus-entzunezko bati ahotsa jartzeko bildu dira Araiz Aldazabal Ludotekako hezitzailearekin, eta ilusioz nabari zaie. Ipotx baten papera beteko du Ekhi maiatzaren 11ko antzerkian. Ez da taula gainean arituko den lehen aldia, aurrez ibilia

delako Eibarren aitek zuzendutako antzezlan batzuetan lanean, baina oraingo hau “oso berezia” izango dela aitortu du: “Berezia, geuk sortu dugulako, egunero elkarrekin gabiltzanok parte hartuko dugulako eta herritarren aurrean eskainiko dugulako”. Bat datoz Leire eta Naia ere. Honelako antzezlan batean arituko diren lehen aldia izango da haien tzat, nahiz oholtza gainean aritzea zer den ezagutzen duten batak zein besteak.

Ludotekan ordu asko igaro dituztela azaldu dute hirurek, eta familia handi bat osatu dutela han. Eskola-orduak amaitu eta ia egunero-egunero elkartu izan dira urteetan Ludotekan, eta bistan da arrastoa laga diela. “Elkarbizitza hori oso aberasgarria izan da”, esan du Ekhi. Denbora daramate Ludotekan Arnoren gaia lantzen, eta hainbat lan

Arrate Iriondo, Ludotekako gaztetxoek dantzan erakusten.



egin dituzte gai hori ardatz hartuta. Besteak beste, ahozko tradizioak emandako mitoak batzen ibili dira herrian, adinekoak elkarrizketatzen eta abar, eta Arno bertara ere egin dute ibilaldi bat, hango fauna eta flora ezagutzeko. Arnoren gaineko erreferentzia historikoak ere jaso dituzte eta horma irudi handi bat ere marraztu dute Ludotekan bertan. Guzti hori osatzera dator orain ikuskizuna. "Azken traka modukoa da hau", esan du Naiak. "Azken errematea", gehitu du Leirek. Haien ahotik jaso ditugu jaialdiaren inguruko jakingarriak.

Ikuskizunaren nondik norakoak

Ikuskizunak atal ezberdinak izango ditu. Bideo muntaketa batekin hasiko da, eta ondoren, DBH2 eta DBH1ekoek dantza saio bat eskainiko dute. Jarraian, LH6ko ikasleek historiaurreko antzerkitxo bat antzeztuko

dute eta DBH1ekoek txalaparta joko dute. Ikasturte berekoek, jentilen eta suge erraldioen inguruko istorioak kontatuko dituzte gero, eta LH2, LH3 eta LH4koek ehiztarien esketxa egingo dute. Bideo emanaldi batekin jarraituko dute. Ikus-entzunezko baten bidez, Zahatzukin lotutako anekdota baten berri emango dute ondoren gaztetxoek eta powerpoint baten bidez, Arnoko faunaren berri ere emango dute. Ondoren, Ludotekako gaztetxoek, 4,5 eta 6 ureko-

ek, Axuri Beltza dantza dantzatuko dute eta LH6koek txirulaz lagunduko diete. Txorimalo dantzarekin jarraituko diete gero LH5 eta LH6koek eta Arnoko baserrien gaineko bideo-emanaldi batekin eta DBH1ekoek antzeztuko duten bandoleroen gaineko lan batekin amaituko dute ikuskizuna. Antolatzaileek bi saio egitea aurreikusten dute: bata, 17:00etan, eta bestea, 18:30ean, eta sarrerak doan banatuko dituzte, gonbidapen moduan.

AMAGOIA ZABALA, LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA KUDEATZEN DITUEN ENPRESAKO KOORDINATZAILEETAKO BAT



Urte osoko lana erakutsiko duzue maiatzaren 11ko jaialdian. Arnoren bueltan osatutako lana izango da. Zergatik Arno?

Urte osoan zehar bai Ludotekan eta bai Gaztelekuan hainbat ekintza antolatu ditugu, baina ekintza batzuk bereziak izan dira, Arno izan dutelako guztiek ardatz nagusi. 2013ko apirilaren 19an Eusko Jaurlaritzak kontserbaziorako eremu izendatu zuen Arno ingurunea, eta guk balore bat eman nahi izan diogu horri. Gure aurreko aldean altxor bat daukagu, eta ez gara jabetzen. Hortaz jabetzeko, bi irteera egin ditugu, Mutrikuko Gaztelekuarekin ere ekintza bateratu bat egin genuen, eta azken hilabete hauetan hainbat tailer desberdin antolatu ditugu, jaialdiari begira: txalaparta, dantza, antzerkia... Sormen artistikoa baliatuz, Arno in-

gurunearen inguruko informazioa eman nahi dugu, eta bide batez, jendearen parte-hartzea bultzatu.

Gaztelekuko eta Ludotekako haurrek sortuako ikuskizuna da eskusiboan?

Gaztelekua eta Ludoteka Agintzari kooperatibak kudeatzen ditu, eta bi gune horien arteko elkarlanaren fruitua da hau. Beraz, nagusiki, bi gune horietako erabiltzaileak izango dira parte hartuko dutenak, baina herriko beste gazte batzuk ere ariko dira.

Ludoteka eta Gaztelekuaren inguruan, herriko beste eragile batzuk ere mobilizatu dira jaialdirako. Zer balorazio egiten duzue elkarlan horretaz?

Horrelako jaialdi bat antolatzeak lanordu asko eskatzen ditu. Ezin izango genuke hau guztia aurrera eraman, Arrate Iriondo, Leire Alberdi, Ana Alberdi, Oihana Tarra-gual, Andoni Zubiaurre Gorixo eta Mendaroko beste hainbat lagunengandik laguntzarik izan ez bagenu. Guzti horiek euren denbora eta ezagutza eskaini dizkigute.

Zenbat egun edo hilabeteko lana eskatu dizue hau dena prestatzeko?

Azkeneko bi hilabete hauetan burubelari gabiltza hau dena prestatzen. Sormen tailer guztiak ere martxoan jarri genituen martxan. Ludoteka eta Gaztelekuko orduak aprobetxatzen ditugu, baina dantzak eta antzerki tailerrak, adibidez, ordu horietatik kanpo egiten dira.

Zer nolako balorazioa egiten duzue gazte-ek egindako prestaketa lanez?

Dena prestatzea ez da lan erraza izan, jende asko mugitu behar izan dugulako eta batez ere gazteak mugitzea asko kostatu zaigulako. Hala eta guztiz ere, oso pozik gaude eta balorazio positiboa egiten dugu, aspaldian Mendaron ez baitugu horrelakorik izan. Nahiko genuke lehen egiten ziren ekintzak berreskuratzea. Guk uste dugu behin jaiadia bera aurkezten dugunean, jendea motibatuko dela eta honek segida izango duela. Hori nahiko genuke guk. Astialdi pasiboa aktibo bihurtu behar dugu, jendea herrira lotu, herriko parte sentitu daitezen, eta bide batez, norbanakoen garapen pertsonala suspertu.

Gure Esku Dago eguna ospatuko dute Mendaron maiatzaren 10ean, erabakitze eskubidearen alde

Erabakitze eskubidearen alde, Gure Esku Dago eguna antolatu du Mendaroko Gure Esku dago batzordeak maiatzaren 10erako. Herriko hainbat elkarte eta norbanakorekin elkarlanean, egun osoko egitaraua antolatu dute. Egitarauaren zehaztasun guztiak lotu gabe dituzte oraindik, baina egun biribila izateko osagai guztiak izango dituela aurreratu dute antolatzaileek. Ekainaren 8an Durango eta Iruñea batu asmo dituen giza-katerako motorra berotzeko eguna izango da, eta horrenbestez, giza-katerako metroak eta materiala erosteko aukera ere egongo da [Gaur ere, 18:00etatik aurrera, mahaiak jarriko dituzte plazan, metroak saltzeko]. Mendaron, bi egunetan, 76 metro saldu dituzte, eta helburua gutxienez beste horrenbeste saltzea dela esan dute Gure Esku Dago taldekoek.

Herri-bazkaria eta hamaika ekintza

Herriko elkarte eta eragileek dinamika honi agertutako babesa eskertu dute Gure Esku Dago batzordekoek. "Ez dira egon nahiko luketen guztiak egongo, batzuek beste konpromiso batzuk hitzartuta zituztelako aurrez, Motxaila Band-en kasuan bezala, baina jo ditugun ate guztietan erantzun ona jaso dugu", adierazi dute batzordetik. Bizi-Poza txarangak, Andoni Egaña klowen-ak, Mendaroko herri-kirol taldeak, herriko bertsolari eta trikitilariak eta Gazte Asanbladak, adibidez, baietza eman dute dagoeneko, eta antolatzaileek iragarri dute eguerdian herri-bazkaria ere izango dela, frontoian. Paella, okela gisatua, postrea eta kafea banatuko dituzte, Luzaide tabernatik ekarritako ontziterian, eta tike-tak hamahiru euroan jarriko dituzte salgai Txirristaka eta Menditxo tabernetan, eta Coviran eta Morroskillo dendetan. Bazkaritarako izena emateko azken eguna maiatzaren 7a izango da. Gauean, berriz, erromeria egongo da Gaztetxean, eta finantzatzeko, rifak salduko dituzte.

Zergatik egin duzu bat Gure Esku Dago ekimenarekin?




*Aitzol Urain,
bertsolaria*

"Erabakitze eskubidearen alde nagoelako eta uste dudalako ordua dela denok elkarrekin lanean hasteko. Herri honek merezi du horrenbeste. Euskal Herriak merezi du etorkizun hobeago bat, eta horretarako, denok jarri behar dugu gure onena. Horregatik, maiatzaren 10ean bertsotan egingo nuen galdetu zidatenean, ez nuen dudarik egin. Lanera kanpora bidaltzen ez baldin bannaute, hor egongo naiz. Iruditzen zait ezin dugula halako gai garrantzitsu bat politikariaren esku bakarrik laga. Herriatik sortu da ekimen hau, eta ikustekoa izango da ekainaren 8an egingo den giza-katea".




*Oihana Lopez,
herri-kirol
taldekoen
izenean*

"Gure Esku Dago egunean laguntzeko proposamena egin ziguten eta baietza eman genuen, gurea kirol taldea izan arren, ondotxo dakigulako Euskal Herriari bizi dugun egoera zein den, eta gero eta argiago ikusten dugulako zerbait aldatu nahi badugu, gugandik hasi behar dugula, norbanakoongandik, zain egonda jai daukagulako! Labur esanda, euskal gizarteko pertsona/talde ezberdinak sortzen ari diren dinamikari gure ekarpen xumea egin nahi izan diogu, Euskal Herriak bere etorkizuna libreki eta inolako inposaketa edo trabarik gabe eraiki ahal dezan. Horregatik izango gara maiatzaren 10ean, lemak dioen bezala, gure esku dagoela aldarrikatzeko. Izan ere, lorpen handiak ere ekintza xumeetatik hasten dira".



*Xeber Loiola,
Bizi Poza
txarangaren
izenean*

"Bat egiten dugulako Gure Esku Dago dinamika eskatzen duenarekin. Herrian sortu duten batzordekoek eskatu ziguten parte hartzea eta iruditu zitzaigun askotariko jendea batu nahi duen dinamika izanda, herriko elkarre guztiok parte hartu beharko genukeela, hemen denok jarri behar dugulako geuretik zerbait aurrera egiteko".



*Mirari Olazabal,
Gazte
Asanbladaren
izenean*

"Gure ustez Euskal Herriaren etorkizuna gure esku dagoelako, bai elkarte moduan eta baita pertsona indibidual gisa ere. Gazte Asanblada talde apolitikoa izan arren, gure iritziz munduko herrialde guztiok eskubidea izan beharko lukete zer izan nahi duten aukeratzeko, eta horregatik hartuko dugu parte ekimen honetan".





OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOJIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIAI
- Tapoiak neurri
(uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I © (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-
koa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, es-
triai)

**Osasunerako ariketa agin-
dua**

(Diabetes, osteoporosis,
hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak

(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

**Txirindulariaren biomekani-
ka** (kalak, ergonomia bizikle-
tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.

Tel.: 943 740 191
667 953 628



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**

Eibar

Ate irekien eguna

Apirilak 30

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Elkartrukeak

Portaleako Erakusketa

Apirilak 4 - 27



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

I. URTEURRENA



MILAGROS BERGANZO IRCIO

*Zuk erakutsi zenigun oinez ibiltzen
eta orain zu gabe egin behar dugu aurrera.
Inoiz ez zaitugu ahaztuko*

Familiakoak

*1930eko uztailaren 29an jaio zen, Salinillas de Buradonen (Araba).
I. urteurreneko meza eguaztenean, apirilaren 30ean, izango da arratsaldeko 19:00etan
Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.*



ESKERTZA



MARIA BEATRIZ AIZPURUA

*Madarixatik Mendarora
bitarteko zeru sabaian
izar berri disdiratsu bat
azaldu da keinuka, eta
zure bilobak ziur daude
amama Maria izango dala.
Mikel, Joseba, Nerea, Aitor eta Miren.
Muxu handi batekin, agur.*

1931-12-12 / 2014-04-12
82 urte



ESKERTZA



MANUEL LOIOLA IRIONDO

*Ikusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gañean,
etxe ttipitto aintzin xuri bat,
lau haitz haundiren erdian,
txakur txuri bat atean,
iturriño bat aldean
han bizi naiz ni pakean.*

*2014ko apirilaren 9an hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Astigarraga jubenil nesken taldeak Espainiako Txapelketa jokatu du asteburuan, Granollers

Gaur jokatu du estreinako partida, BM Granollers taldearen kontra

Asteburu gogorra du aurretik Sanloko Astigarraga jubenil nesken taldeak. Euskadiko Txapelketan hirugarren eginda, Espainiako Txapelketarako sailkatu ziren, eta iritsi zaie eguna. Gaurtik domekara bitartean jokatu dute txapelketa. Guztira, 32 talde lehiatuko dira, zortzi multzotan, eta elgoibartarrak BM Granollers, Kanarietako Kia Arimotor Teide eta Aragoiko BM Maristas taldeen kontra ariko dira. Gaur bertan izango du estreinako partida, Kataluniako Ligan hirugarren dagoen BM Granollers taldearen kontra, eta zapatuan Aragoiko BM Maristasen kontra lehiatuko dira. Domekan, berri, kanariarrak izango dituzte aurkari.

Eskubaloi Eguna, maiatzaren 1ean

Maiatzaren 1ean Eskubaloi Eguna ospatuko dute, Kalegoen plazan. Benjamin eta alebin mailako neska-mutilentzat antolatutako jardunaldia izango da, eta goiz eta arratsaldez egingo dira ekintzak. Eguerdian, gainera, elkarrekin bazkalduko dute plazan hala nahi dutenek. Jatekoa norberak eraman beharko du, eta postrea eta edaria Sanlok jarriko ditu. Aurten, gainera, Eskubaloi Egunean parte hartzen dutenek lotara Aubixara joateko aukera izango dute (plazak bete arte).



Horretarako, baina, 25 euro sartu beharko dira Kutxabanken kontu korrante honetan, apirilaren 30erako: ES57 2095 5036 51 1064353542. Antolatzaileek jakinarazi dute, baina, Aubixara joaten direnak han bertan jaso beharko direla hurrengo egunean, ez baitute itzulerarako autobus zerbitzurik izango. Interesatuak Sanloren webgunean eman dezakete izena, taldeka: www.sanlo.net.

Luis Alberto Hernando eta Maite Maiora nagusitu ziren orain arteko Kilimon Trail mendi lasterketa jendetsuenean

Faboritoek ez zuten hutsik egin Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketan. Sekula baino jende gehiagok izena eman zuen, eta inoizko kartelik onena osatu zuten, baina denen artetik, bi ziren lasterketa irabazteko faborito nagusiak eta ez zuten hutsik egin. Gizonezkoetan, Luis Alberto Hernando (Burgos, 1977), iazko Zegama-Aizkorri maratoiko txapeldunordea, gailendu zen 1:51:17ko denborarekin, eta emakumezkoetan, Maite Maiora (Mendaro, 1980), bezperan Espainiako Bertikalen Kopa irabazte-tik zetorrena: 2:13:36. Orain arteko markak ere ondu zituzten biek. Antolakuntzak lasterketa gogortu zuen aurtengo ediziorako, Gaintxipixako gaina gehituz ibilbidean, baina, hala ere, bi minutu eta erdian ondu zuen Luis Alberto Hernandok iaz Imanol Goñik ezarritako errekorra, eta beste horrenbeste egin zuen Maiorak, ordura arte berak zeukan errekorra bost minutuan onduz.

Guztira, 204 korrikalarik amaitu zuten proba, eta honako hauek osatu zituzten podiumak. Gizonezkoetan, Ismail Razga eta Imanol Goñi sailkatu ziren Luis Alberto Hernandoren atzetik, eta emakumezkoetan, Sonia Regueiro eta Sara Peña, Maioraren atzetik. Argazki gehiago: www.elgoibarren.net-en eta Kilimon Trail-ek izen horrekin Facebooken daukan orrialdean.



Nazioarteko krosen egutegian sartu dute Mugertza Krosa

Munduko hamabi kros onenen artean sartu dute

Atapuercako (Burgos) eta Italicako (Sevilla) kros handien ondoren, Elgoibarko Mugertza Krosa da estatuan onena. Izendapen horixe eman dio Espainiako Atletismo Federazioak, 2012an egin zuen bezalaxe. Hirugarren postu horri esker, Nazioarteko Atletismo Federazioen (IAAF) egutegian sartu dute Elgoibarkoa. Nazioarteko Juan Mugertza krosak EAA kategoria lortu zuen 2012ko denboraldian, eta hiru denboralditan kategoria horretan mantendu ostean, orain IAAF kategoriarira iritsi da; hau da, kros baten antolatzaileek espero duten goreneko mailara. Munduko hamabi kros onenen artean dago, beraz, Mugertza krosa, eta Mintxeta Atletismo Taldeko kideek gustura hartu dute albistea: "Antolatzaileok atsegin handiz hartu dugu azken urteotan egin dugun lanak saria izan duela ikustea. Eskerrak eman nahi dizkiegu erakundeei, enpresa pribatuei, bolunta-



rioei, hedabideei, federazioei, atletei, entrenatzaileei, zaleei, eta batez ere, Elgoibarko herri osoari, inolako zalantzarik gabe, ekitaldi hau munduko krosaren gailurrera iristeko eman diguten babesagatik. Espero dugu aurrerantzean ere jarraitzen laguntzea, maila honi eutsi ahal izateko". Nazioarteko Kros Federazioak ez du oraindik 2014-2015 denboraldiko krosen egutegia argitaratu, eta beraz oraindik ez dakigu Mugertza krosa noiz jokatu den.

Jubenilen areto futboleko Euskadiko Kopako finala Elgoibarren jokatu da



CD Debarrena areto futbol klubak jakinarazi du Elgoibarren jokatu dutela jubenetako Euskadiko kopako finala. Maiatzaren 4an izango da, Olaizaga kiroldegian, 11:00etatik aurrera. Gipuzkoako ordezkaria Elgoibarko Kingo-Kong taldea izango da, berak irabazi zuen-eta Gipuzkoako txapelketa. Bizkaiko Santutxu taldearen eta Arabako Olaizu edo Amurrioren kontra jokatu beharko dute. Hiru taldeek elkarren kontra jokatu dute, eta partidak hogeiturokoak izango dira.

Zabalik dago udako kirol campusean izena emateko epea

Elgoibarko Udako Kirol Patronatuak zabaldu du dagoeneko udako kirol campusean izena emateko epea. Aurtengo kanpusean ekainaren 13tik uztailaren 18ra bitartean izango da, eta interesatuak ekainaren 6rako eman beharko dute izena.

2014ko edizioak izango planteamendu berbera izango du: Hortaz, 2007 eta 2003. urteen artean jaiotako eskola-umeentzat prestatu duten campusean ludikoa izango da, eta jolasean oinarrituko da, bereziki. Campusean honetan parte hartzen dutenek asteleheneratik ostiralera jardungo dute kirolean, 9:30etik 12:30era.

2002 eta 1999. urteen artean jaiotakoek, bestalde, errendimendu campusean parte hartuko dute. Eskakizun fisikoa handiagoa izango da, eta garrantzia emango zaie praktikatu diren kirolek dituzten arlo teknikoak. Campusean asteleheneratik ostiralera egingo da, 9:30etik 12:15era. Besteak beste, urpekaritza, tenisa, padela, spinning-a, eskubaloia edo mendiko txirrindularitza praktikatu dituzte.

Campusean prezioa 105 eurokoa da (95 eurokoa Kirol Patronatuaren bazkideentzat), eta Olaizaga kiroldegiko bulegoetan eman behar da izena.



Lagunak pilota eskolaren errifaren zozketa

Lagunak pilota eskolaren binakako finalerako bi sarrera eta afari bat zozketatu ditu. Apirilaren 12ko loteriako azken lau zenbakiak zituen boletoari egokitu zitzaion saria, 1.147 zenbakia, hain zuzen ere. Txartel hori ez zuten saldu, baina, Lagunak eskolako arduradunek, eta ondorioz, sariaren balioa Elgoibarko Caritas elkarteari ematea erabaki dute.

Concepto Egile areto futbol taldeak liga irabazteko aukera du oraindik

Bi partida falta dira txapelketa amaitzeko



Areto futbol liga amaitzeko bi partida falta dira, eta Concepto Egilek txapelketa eskuratzeko aukera dauka oraindik. Pinseque lehen sailkatuak bost puntu gehiago ditu, eta sei puntu daude jokoan oraindik. Bi final dituzte beraz datozen asteetan, eta bihar jokatu dute lehenengoa, Olaizaga kiroldegian. 18:00etatik aurrera, Ibarra taldearen kontra neurtuko ditu indarrak Elgoibarko taldeak. Ligaz aparte, Espainiako Koparako sailkapena ere jokoan dute elgoibartarrek.

Omenaldia

Biharko partidaren, bestalde, oinarriko mailako taldeei omenaldia egingo diete Debarrena klubeko arduradunek. Jubenilek Gipuzkoako txapelketa irabazi dute eta Euskadiko txapelketa jokatu dute; kadeteak laugarren postuan sailkatuta daude eta partida bat irabaziz gero, txapeldunorde izateko aukera dute oraindik; eta alebnek Gipuzkoako multi-kiroletako txapelketan dihardute.

Aiastian izango da Hiru Txirlo txapelketako hurrengo jaurtialdia, bihar

Aiastiako bolatokian jokatu dute bihar Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako seigarren jaurtialdia. Une honetan Elgetako Antonio Ibarluzea dago txapelketako lehen postuan, 18 punturekin, eta Aiastiako Angel Ibarluzea da bigarrena, bi puntu gutxiagorekin.

Arabako golf txapelketa irabazi du Ion Iñaki Egaña elgoibartarrak

Apirilaren 12an eta 13an jokatu zuten Arabako golf txapelketa Izkiko berdegunean, eta Ion Iñaki Egaña elgoibartarra izan zen onena. Lehenengo egunean 80 kolpe egin zituen golflari elgoibartarrak, eta hurrengo egunean, 78. Guztira, beraz, 158 puntu eskuratu zituen eta berak irabazi zuen txapelketa.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Santutxu 1 (3. maila)
Elgoibar 0 – Amaiak Bat 2 (Erreg.)
Erandio 5 – Elgoibar 0 (Neskak)
Amaiak Bat 2 – Elgoibar 0 (Jub.)
Elgoibar 2 – Amaiak Bat 2 (Kad. A.)
Elgoibar 3 – Iksaberri 0 (Kad. B.)
Hondarribi 0 – Elgoibar 2 (Lehenengo inf.)
Elgoibar 1 – Anaitasuna 0 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Colo Colo 1 – Concepto Egile Elg. 3 (2B)

ESKUBALOIA

Tolosa 34 – Alcorta Elg. 32 (Sen. mut.)
Gabaz Elg. 31 – Corazonistas 23 (Sen. mut.)
Astigarraga Elg. 30 – Elbar 21 (Jub. neska.)
Beristain Elg. 28 – Tolosa 31 (Jub. mut.)
Usurbil 17 – San Roke Elg. 21 (Inf. neska.)
Bankoa Elg. 26 – Bidasoa 21 (Inf. mut.)
Pulpo 15 – Deca Elg. 33 (Inf. mut.)
Tecnifuelle Elg. 17 – Errotaberri 20 (Kad. neska.)
Tecnifuelle Elg. 17 – Kukullaga 18 (Kad. neska.)
Zuazo 19 – Tecnifuelle Elg. 20 (Kad. neska.)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa

Lagunak 7 – Bergara 22 (Jub.)
Lagunak 22 – Soraluze 7 (Nag.)

4 t'erdiko udaberri txapelketa

Lagunak 9 – Aurrera Saiaz 22 (1. mailako nag.)
Lapke 15 – Lagunak 22 (1. mailako nag.)
Aurrera Saiaz 12 – Lagunak 22 (1. mailako nag.)
Azkoitia 16 – Lagunak 22 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Allerru 16 (2. mailako nag.)
Añorga 15 – Lagunak 22 (2. mailako jub.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 26
18:00 Concepto Egile Elg. – Ibarra (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 26
10:00 San Roke Elg. – Bidasoa (Inf. neska.)
11:15 Murgil Elg. – Usurbil (Inf. neska.)
16:00 Pneumax Elg. – La Salle donostia (Kad. mut.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 25
21:30 Lagunak – Soraluze (Jub.)
22:15 Lagunak – Eskoriatza (Nag.)

151.200 euroko diru-laguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarrari 2014an

laz baino 27.000 euro gutxiago jasoko du aurten elkarteak

Elgoibarko Udalak 151.200 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari 2014rako, hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Aurten ere, bi udal sailetatik bideratuko da diru-laguntza hori: Euskara Batzordetik 106.200 euro jasoko ditu elkarteak, eta Gazteria Batzordetik, berriz, 45.000 euro. Elgoibarko Izarrak Elgoibarko Udalarekin hitzartutako egitasmoen aurrekontua 408.686,07 eurokoa da, eta Udalak emandako diru-laguntza aurrekontu horren %37 da. laz, 178.200 euro jaso zituen elkarteak Udaletik.

Elgoibarko Izarrak eskerrak eman dizkio Udalari eskainitako laguntzaren-gatik, eta aurrerantzean ere, bide bere-tik segitzeko asmoa erakutsi dute el-karteko arduradunek. Izan ere, admi-nistrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana "ezinbestekoa" dela us-te du Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidenteak, haur eta gaztetxo-en aisialdi hezitzailea indartu, eta euskara eta euskal kultura gure herrian susta-tzeko. Ikus dezagun diru hori nola gau-zatuko den proiektu eta egitasmoetan:



EUSKARA BATZORDETIK:

- BARREN eta elgoibarren.net: **57.600 euro.**
- Aisia erabilera (Familia transmisioa, Ter-tuliak, Bertso Eskola, nerabeen plana, eskolaz kanpoko eragileak): **39.600 euro.**
- Bestelakoak (Gabonetako bertso jaial-dia, Santa Ageda, Ikastoletako jaialdieta-rako autobusak, Udazkeneko kultur es-kaintza, Ahotsak egitasmoa gizartera-tzea): **9.000 euro.**

GAZTERIA SAILETIK:

- Atxutxiamaika (2-12 urte artekoentzako eskaintza, Udaberri festa, Aste Santuko eskaintza, Atxutxiatxintxika, udako es-kaintza, San Fermin Txiki, udazken festa, Gabonetako eskaintza, Olentzero eta Mari Domingiren kalejira): **45.000 euro.**

‘Zortzi ipuin gotiko’ liburua kaleratu du Jon Eugik



Beldurrezko istorioak bildu ditu Jon Eugik *Zortzi ipuin gotiko* (Elkar) liburuan. Izuaren gene-roan unibertsalak diren gai eta giroak ukitu ditu Eugik, eta Edgar Alan Poe, Robert Louis Steven-son eta Bram Stoker dira ipuin-liburu honetako narrazioak idaztean aintzat hartu dituen eredu-tako batzuk. Gazte talde batek Halloween gauean hilerrira egindako bisita, etxe sorginduak, ma-darikazioak, funeraria bateko langilearen ezustekoak, mamuak eta deabruak izan dira, besteak beste, idazleak erabili dituen gaiak, irakurlearen izu-sentimendua pizteko. Beldurrezko generoan erabili izan diren gaiak eta giroak balliatu dituela aitortu arren, bere ukitu pertsonala eman diela nabarmendu zuen Eugik liburuaren aurkezpenean. Generoko zinearekin alderatuz, “literaturan denbora eta esaldi dezente erabili behar dira egoera bat planteatzeko, horregatik irakurlea bel-durtzea ez ezik, irakurlea irakurketarekin gozarazten saiatu naiz eta horretarako idazketa abera-tsa erabili dut, generoak ahalbidetzen baitu halako estiloa erabiltzea”, azaldu zuen Jon Eugik.

Kazetaria da Jon Eugi, eta orain arte abenturazko nobela bat [Piraten uhartea, 2009] eta haurrentzako ipuin bat [Animaliakeriak, 2011] argitaratu ditu.

Udal Artxiboko dokumentuak digitalizatu dituzte

1975. urtea bitarteko edukia digitalizatu dute dagoeneko

Elgoibarko Udal Artxibo dokumentu zaharrak digitalizatzen dihardu Jose Valderrey enpresak 2011tik hona, Euskadiko Artxibo Historikoaren laguntzarekin. Lehen bi faseetan 1346-1960 urte bitarteko dokumentuak digitalizatu zituzten, eta orain, hirugarren fasean, 1564 eta 1975 urte bitarteko 57 liburu digitalizatu dituzte: Kontu Liburuak (1564-1803), Ordenantzen Liburuak (1761-1710), Alkabalak edo salmenten gaineko zergen liburuak (1661-1710), gerra gastuak estaltzeko saldu ziren herri-jabetzei buruzko argitalpenak (1808-1811), Kontribuzioen liburua (1809-1890), Arielak (1821-1888), Kapitulu-Aktak edo 1920tik 1975era doan aldiari dagozkion Plenuen Liburuak eta Udal Batzarraren eta Batzorde Iraunkorraren Akten Liburuak (1915-1924 eta 1924-1975, hurrenez hurren).



Udal Artxiboa kontsultatu nahi duten herritarrek udaletxera jo besterik ez dute. Udal artxiboa kontsultatzeko espreski jarri duten ordenagailu batean eskuratu ahal izango dute informazio guztia, debalde. Besteak beste, udaletxeko aktak, hitzarmenak, lurjabeen eta Udalaren arteko akordioak, notario-aktak, gerrateak, araudiak, burdinola, bide eta lursailen inguruko informazioa... daude digitalizatutako artean.

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleak Debako akordeoi topaketan izan ziren



Inazio Bereziartua musika eskolako soinu ikasleak eta Maite Janeiro irakaslea Debako akordeoi topaketan izan ziren. Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko 18 musika eskoletako ikasleek hartu zuten parte, eta guztira, 170 soinu-jole inguru batu ziren topaketan. Debako erraldoiak, Aitzuri koroa, Goaz antzerki taldeak eta Debako musika eskolako ikasle eta irakasleek ere hartu zuten parte.

Elgoibarko Izarraren

Batzar Orokorra maiatzaren 7an

Urtarrilean egindako Bazkideen Batzar Orokorrean erabaki zen moduan, Elgoibarko Izarrak berriz ere deituko ditu bere bazkideak orduan erabaki, onartu edo aurkeztu gabe geratu ziren gaiak lotzeko. Maiatzaren 7an izango da batzarraren, 19:00etan hasita, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Besteak beste, 2014-2016 urteetarako Plan Estrategikoaren barruan antolaketa-eredua aurkeztuko dute, 2014-2016 urteetarako Zuzendaritza Batzordearen proposamena egingo dute eta 2013ko memoria ekonomikoa aurkeztuko dute. Elgoibarko Izarrako Zuzendaritza Batzordeak elkarteko bazkide guztiak animatu nahi ditu batzarrera azaldu eta bertan parte hartzera.

'8 apellidos vascos' filma

Herriko Antzokian, maiatzeko jai-zubian

8 apellidos vascos filmak izan duen arrakasta ikusita, Udaleko Kultura Sailak erabaki du filma berriz ematea. Aurrekoan ikusterik izan ez zutenek, beraz, maiatzaren 1ean eta 2an izango dute horretarako aukera. Egun bakoitzean bi saio emango dituzte, 19:30ean bata eta 22:15ean bestea. Sarrerak Kutxabank bitartez eros daitezke aurrez, eta Internetez saltzen ez diren sarrerak takilan jarriko dituzte salgai.

'De Txillarre a Aiete' filmaren

emanaldia, maiatzaren 8an

Arnaldo Askatu herri ekimenak *De Txillarre a Aiete* filma eskainiko du maiatzaren 8an Herriko Antzokian. Ekimen hau Ongarri zineklubarekin elkarlanean antolatu dute, eta filmaren zuzendari eta ekoizleak gonbidatu dituzte, dokumentala aurkezteko. Dokumentala Katalunian ekoiztu dute, eta azken hamar urteotan euskal gizartean gehien eragin duten gertakizun politikoak kontatu dituzte 17 pertsona esanguratsuren ahotan. Antolatzaileen ustez, dokumental "interesgarria" da gure azken urteotako historia "ikuspegi eta iritzi anitzetatik" hobeto ulertzeko. 21:00etan hasiko da emanaldia, eta sarrerak 5 eurotan salduko dituzte.

LANA

ESKAERA

- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **631 343 232**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **636 362 251**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Geriatria ikasketak eta esperientzia handia. ☎ **632 253 170**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest, orduka edo interna. Esperientzia handia. Garbiketarako egiteko prest. ☎ **616 457 254**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Gaeuz ere bai. ☎ **680 121 252**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **646 931 162**
- Emakumea lanerako prest: adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko... Edozein lanerarako prest. ☎ **632 836 130**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Elgoibarren zein Mendaron. Gaeuz ere bai. ☎ **619 041 821 / 943 744 033**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Orduka. ☎ **699 232 823**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. ☎ **606 354 982**
- Gizonezkoa lan bila. Urteko sasoi jakinetarako lanak egiteko prest. Elikagaiak manipulatzeko agiria daukat. ☎ **677 866 495**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanerarako. Garbiketara lanetan eta zerbitzari moduan esperientzia. Elikagaiak manipulatzeko agiria daukat. ☎ **678 292 120 / 602 473 663**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Erreferentziak ditut. ☎ **648 039 187**
- Emakumea lan bila. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta garbiketara lanetan. ☎ **672 966 528 / 943 254 087**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen eta garbiketara lanetan. ☎ **671 948 637**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen eta garbiketara lanetan. ☎ **602 814 484**
- Emakume elgoibartarra eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Autoa daukat. ☎ **688 606 181**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. edo garbiketara lanak egiteko. Orduka. ☎ **677 521 374**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 102 186**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak edo garbiketara lanak egiteko. ☎ **646 464 300**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. ☎ **675 358 119**
- Gizona lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. ☎ **692 332 871**
- Emakumea lan bila. ☎ **631 203 287 / 622 037 598 (Wilma)**

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **631 343 232**
- Pisua alokatzen dut erdialdean, Kalegoen plazatik gertu. Bi logela, etxetresna berriak. Berritua eta altzariekin. Prezioan Internet barne. ☎ **660 056 240**
- Bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **636 581 194 (Maria)**
- Logela bakarreko etxea alokatzen dut, Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Naiara)**

PARTIKULARRAK

- Klase partikularrak ematen ditut, LH5-6 eta DBH1-2 mailetan. Esperientziaduna. Eki ordenagailu programarekin, euskaraz zein gaztelaniaz. ☎ **699 477 611**

GARAJEAK

- 44m2-ko garajea alokatzen dut Jausoron. ☎ **943 742 322 / 675 403 763**
- Garaje handia eta itxia alokatu edo salduko nuke. Jausoron dago. ☎ **652 727 631**
- Garaje marraduna alokatzen dut, Lekuederren. ☎ **660 042 159**

KINTOAK

- 1974an jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 17an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira, Kalegoen plazan. Luntxa, bazkaria, DJa eta argazkia izango dituzte. 45 euro ordaindu behar dira, maiatzaren 8rako. 3035 0007 21 0071128773 (Laboral Kutxa).
- 1964an jaiotako mendarorrek bazkaria egingo dute ekainaren 21ean, Landa jatetxean. Iluntzean DJ saioa. Interesatuak 80 euro sartu behar dituzte, Kutxabaneko kontu honetan: 2095 5054 00 9113698813. Azken eguna, maiatzak 31. ☎ **638 233 326 (Belen) / 629 258 172 (Juanmi). 1964mendaro@gmail.com**

BESTERIK

- Ume baten betaurreko urdinak aurkitu ditut Bernardo Ezenarro kalean. Udaltzaingoa utzi ditut.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Eraikuntza berri bateko bizilagun batek komentatu zidan sekulako hezetasan arazoak zeuzkala ganbarako sabaian, teilatuaren azpiko aldearekin bat egiten duen sabaian. Galdezka hasi nintzaion eta konturatu nintzen ganbara egokitu, etxe barrutik eskailera bat eraiki eta bizilekutzat erabiltzen zuela orain ganbara. Gainera, sabaian leiho bat egin zuten, argi gehiago sartzeko eta zerbitzu guztiak zituen han goian, berogailua barne.

Etxe barruan eta ganbaran egin zituen aldaketa guzti horien inguruan galdetu nion eta bizilagunak ez zuen ulertu zergatik ari nintzaion aldaketen inguruan galdezka; ez zuen ulertzen zergatik zitzaidan horren beharrezko informazio hori hezetasan arazoei lotutako gai hau aztertzeko.

Gai korapilatsua da hau, eta garbi dago hezetasan arazoen inguruan ezin dela 'a priori' erantzun azkar bat eman, ez behintzat arazo horrekin lotura izan dezaketen elementu eta faktore guztiak ondo aztertu gabe; ez hasierako arazo hori gehiago okertu dezaketen kontuak aztertu gabe. Ganbara egokitu eta erosoago egiteko egiten diren aldaketa guztiak tekniko baten aginduei jarraituz egin behar dira. Tekniko horrek zehaztuko ditu jarraitu beharreko pausoak eta berak aholkatuko digu zerekin eta nola egokitu espazio hori.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Gure **printzesari**, zorionak eta besarkada handi bat, bere bosgarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Nahia maitia**, asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Elgoibarko familia osoaren partez, muxu asko.



• Zorionak, **Iker**, apirilaren 23an 9 urte bete zenituelako. Ama, aita eta lbaireren partez.



• Zorionak, **Markel**, apirilaren 18an 9 urte egin zenituelako. Zure poztasunak pozten gaitu egunero. Muxu handi bat, familiako partez.



• Zorionak, **printzesa**, apirilaren 17an 6 urte bete zenituelako. Etxeko eta lagun guztien partez, besarkada bat.



• Zorionak, **txapeldun**, apirilaren 19an 11 urte bete zenituelako. Etxeko eta lagun guztien partez, besarkada bat.



• Zorionak, **Nere**, Oso ondo pasatu genuen zure zazpigarren urtebetetze egunean.




• Zorionak, **Maddi**, asteartean 8 urte bete zenituelako. Muxu bat, etxeko eta bereziki Jokinen partez. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Amaia**, zure bosgarren urtebetetzean. Familiako eta bereziki Markelen, Oinatzen eta Goiuriren partez.




• Zorionak, **Alain**, zure hamaikagarren urtebetetzean. Muxu handi bat, etxeko partez.



• Zorionak, **losu**, asteartean 5 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Nerea**, amatxo, Joan eta familiako guztien partez.



• Zorionak **Peru eta Martinari**, hilaren 22an urtebete egin dutelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Nadet**, gure printzesa! 6 urte egin dituzu dagoeneko. Muxu handi bat amamaren partez.



Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu

2014 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu **943 744 112** edo **943 743 704** zenbakira edo idatzi barren.publi@elgoibarkoizarra.com helbidera.

M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOA

Urkizu, 13 943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA
Eibarko
Centro Médico
Osasundegia



cmelbar@hotmail.com www.centromedicoelbar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA
eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko diogu.

25 barixakua

Musika

23:00 Kontzertua
Sinuosek antolatuta, Bloody Brotherhood taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

26 zapatua

Azken zapatuko feria

9:00 Baseriko produktuen salmenta
Kalebarren plazan.

11:00 Txosnaren irekiera
Taupada antzerki taldeak jarriko du, Kalebarren plazan.

12:00 Kale Kantariak
Kalebarren plazatik.

12:00 Artile tailerra
Kalebarren plazan.

12:00 Ganadu erakusketa
Aita Agirre plazan.

27 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua
Herriko Antzokian.
1. *The centurion* (Philip Sparke)
2. *Lo imposible* (Velazquez)
3. *Alpina Fanfare* (Franco Cesarini)
4. *Avatar* (James Horner)
5. *1812* (Tschaikowsky)

28 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra
Haizeak antolatuta, *Los poderes en Europa, el religioso y el civil* gaia aztertuko dute Carmen Agirre historialariarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

29 martitzena

Tailerra

17:00 Literatura tailerra
Haizeak antolatuta, *Los poderes en Europa, el religioso y el civil* gaia aztertuko dute Carmen Agirre historialariarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Hitzaldia

18:00 Makina-erreminta: 100 urteko eskarmentua
Sektoreko hainbat adituk eskainiko dute hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

30 eguztena

Erakusketa

12:00 Makina-erremintaren mendeurrena
Udaletxe atzeko Katanarra atean.

Gure Esku Dago

17:30 Metroak salgai
Kalegoen plazan.

1 eguna

Kirola

10:00 Eskubaloi Eguna
Sanlok antolatuta, Kalegoen plazan.

2 barixakua

Erakusketa

18:30 'Burdinezko arima'
Fernando Callejaren margo erakusketa ikusteko aukera egongo da hilaren 2an eta 3an, Kultur Etxean.

3 domeka

Santa Kurutz Eguna

11:00 Meza
San Roke auzoko ermitan meza emango dute, eta segidan, bedeinkazioa.

6 eguztena

Ipuin kontalaria

17:00 'Fraxkitoren errepertoyo galdua'
Udal liburutegian.

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
25 Fernandez	Astelehenetik igandera	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)
26 Zabaleta		
27 Barrenetxea	Yudego	
28 Ibañez		
29 Garitaonandia		
30 Etxeberria		
1 Barrenetxea		
2 Fernandez		
3 Yudego		
4 Yudego		
5 Zabaleta		
6 Barrenetxea		
7 Ibañez		
8 Garitaonandia		
9 Etxeberria		

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«Philomena»

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:00/22:15* (VOS)
27, domeka: 19:00/21:30
28, astelehena: 21:30

«Bram Barrabas»

27, domeka: 16:30

«8 apellidos vascos»

1, eguna: 19:00/22:15
2, barixakua: 19:00/22:15

«Dallas buyer club»

3, zapatua: 19:00/22:15* (VOS)
4, domeka: 19:00/22:15
5, astelehena: 21:30

«De Txillarre a Aiete»

8, eguna: 21:00

**Batxilergorako Eskaintza (A eta D)
2014-2015**

**Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak**



943 12 16 98
azitain@lasalle.es



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ARANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuizuzul!



Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. Uekidako Unibertsitatea eta Madrilen. Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. Uekidako Unibertsitatea. Kirurgia Masterreko Irakaslea. Salamancako Unibertsitatea. Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Avtrian Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, INIQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTASALUD, PADI...
Galdetuizuzul!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com